

Merkatuaren segmentazioa

- Zein da zure bezeroa?

Gure bezeroak hortz-protesi bat onartu ezin duten eta oinarritzko hortz-tratamenduetara sartu ezin diren beharrezko baliabiderik gabeko pertsonak izango dira. Hau da, pertsona horiek baliabide gutxiko pertsonak izango dira. Beren egoera finantzarioa dela-eta, hortz-haginen arretaren kostuak ordaintzeko aukerarik ez duten pertsonak. Horrek eragina izan dezake haien aho-hortzen osasunean eta, ondorioz, haien bizi-kalitatean.

Gure laguntza benetan behar duten pertsonak hautatzeko, eta ez gure zerbitzuak aprobetxatu nahi dituztenak, arreta handiz hautatuko ditugu pazienteak. Horretarako, hainbat urrats egingo ditugu. Argi utzi ditzagun gure irizpideak; kontuan izango ditugu diru-sarrerak, lan-egoera, gastu sozialak eta osasun-baldintzak. Datu horiek lortzeko, inkestak egingo ditugu, eta, haietan, finantza-egoerari, hileko gastuei eta beharrei buruz galdetuko diegu. Azkenik, informazioa egiaztatuko dugu eman dizkiguten dokumentuak aztertuz (soldata-ordainagiriak, fakturak, zerga-aitorpenak...).

- Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gure bezeroak aho-hortzetako arazoak dituzten pertsonak izango dira, hala nola murtzikatzerakoan eragiten dietenak (baliteke jaterakoan mina edo ondoeza sentitzea), artikulazio-arazoak dituztenak (baliteke zenbait hitz edo soinu ahoskatzeko arazoak izatea eta, ondorioz, komunikatzeko arazoak izatea), arnasketa-arazoak dituztenak, etab. Helburu estetikoetan zentratuko ez garela kontuan hartuta, gure helburu nagusia beste alderdi garrantzitsuago batzuetan zentratzea izango da, hala nola funtzionaltasunean edo erabilgarritasunean.

Alde ekonomikoa alde batera utzita, kontuan hartuko dugun gauza bakarra adina izango da; adinez nagusi diren pertsonen soilik eskainiko dizkiegu gure zerbitzuak. Hau da, ez diegu garrantzirik emango arraza, sexua, generoa eta beste hainbat faktoreri.

Hortz-osasunean arazo gehien dituzten adin-tarteen estatistikei dagokienez, gure bezero kopuru handiena 60 urtetik aurrerakoak izango dira. Bizitzako etapa honetan, normala da hortz-arazoak agertzea, hala nola hortzak galtzea, hortzetako esmaltea hondatzea, pentzeen gaixotasuna eta listu-ekoizpena murriztea. Arazo horiek eragin nabarmena izan dezakete jateko, hitz egiteko eta gizarteratzeko gaitasunean, eta horrek eragina izan dezake adinekoen bizi-kalitatean. Gainera, aho-hortzen osasun txarra gaixotasun sistemikoekin lotuta egon daiteke, hala nola bihotzeko gaixotasunekin, diabetesarekin eta arnas gaixotasunekin.